

JOSE LUIS ALVAREZ

«TXILLARDEGI»

«Sartrek kale bat merezi du Euskal Herrian»

Donostia, 1929. Ingeniaria. Hizkuntzalaria. Idazlea. Irakaslea. Sozialista. Ezkorrera. Euskaldun berria. Piano-jotzailea. Miopea. Nekaezina. Sekula santan erretiroa hartuko ez duen gizona.

Pello Argiñarena

Putzu sakon eta ilun. Gurasoek euskaraz, zuk zergatik ez? Nahiz eta gurasoak euskaldunak izan, esne saltzailea etortzen zenean bakarrik egiten zen euskara etxean. Euskara baztertua zegoen. Ez zen gauza dotorea.

Neumonia osatzeko euskara sendagai egokia izan al zen? Euskara ikasten ohetik hasi nintzen. Hemezortzi urte nituela. Amari galdetuz. Koaderno txiki batean nire gramatika partikularra osatzen hasi nintzen.

Bilbon Ingeniaritza ikasten. Letra gizona zenbakien itsasoan? Matematika eta Hizkuntza gogoko izan ditut beti. Osagarri dira niretzat. Bi ikuspegi ezberdin dira. Ez dago kontraesanik. Soldadutza Ferrolen. Berberetxoak bezala aspertu al zinen Francoren herrian?

Lanperna asko jan nuen. Bitxia bada ere, Francok fama txarra zuen Ferrolen. Nahiago zituzten errepublikazaleak.

...bagare, bagera, bagire, bagara... Bat gara. Nola asmatu zenuten euskara batua?

Ohartu ginen, sarritan, erdarara jotzen genuela euskaldunok elkarren artean ulertu ezinik. Eredu bakar baten beharra ikusi genuen eta lan horretan hasi ginen.

ETAren sortzaileetakoa. 1958. Zer erabaki zenuten lehenengo bilera hartan?

Bi izen proposatu nituen erakunde berriarentzat. ATA, Aberria Ta Askatasuna. Bizkaitarrek ez zuten onartu ahatea, 'ata' baita bizkaieraz. Beste aukerak egin zuen aurrera: ETA, Euskadi Ta Askatasuna.

Atxiloketak. Kartzela. Erbestea. Bi minuturo herrimina?

Ihes egin eta hamasei urte egin nituen etxetik urrun. Parisera lehenik. Gero Hazparnera itzuli. Bruselara azkenik.

V. Biltzarraren ondoren ETA utzi. 1967. Zergatik irten zinen? Batzuk ez ginen ados ETAk marxismo-leninismoaren alde egin zuen apustuarekin. Ni ezkerreko sozialista izan naiz beti. Ekonomiarekin aldetik erradikala, baina politikoki aniztasunaren eta tolerantziaren aldekoa.



Imanol Otegi/Argazki Press

Trantsizioa. Herri Batasunako senataria Madrilen. Alcalá Hotela. Tiro hotsak. Muguruza eraila. Zer duzu gogoan?

Mahai azpian gogoratzen dut nire burua. Itziar Aizpuruaren ondoan. Afaltzen ari ginela sartu ziren. Bala hotsak, oihiak, odola, orroak...

Etsia eta era berean bizitzaz beterikoa. Kontrastean bizi al zara? Ezkor izateak gauza asko egitera narama, beti gauzak hobetzeko asmoz.

Sartre. Gau mahaian maiz egoten den laguna al da?

Tipo jeniala da niretzat. Kale bat merezi du Euskal Herrian. Existenzialismoaren iturritik asko edaten dut.

Piano-jotzaile amorratua. Teklarik gelditzen al zaizu jotzeko? Hainbeste saltsetan sartuta egonik, pianoak lasaitzen lagundu dit.

Gizon betaurrekoduna. Begi kritikoa izateak nekatzen al du bista?

Miopiak nekatzen du bista. Begi kritikoak, berriz, erne egoten laguntzen du.

Koherentzia al da ikasgai zailena bizitzaren karreran?

Gaur egun, gehiago eskertzen da oportunitatea. Zaila da eusten koherentziari. Horretan saiatu izan naiz ni.

Zahartzaroa. Burua edo gorputza. Zein da gobernatzen errazago?

Gorputzak agintzen du, baina buruak badu autonomia.